

Euskalkien jatorriaz eta bilakaeraz

Hizkuntzaren bilakaeran izan diren berrikuntzak kontuan hartuta, euskalkien antzinasunaz eta sailkapenez gogoeta egin du Koldo Zuazo EHUko irakasleak. Bost sorgune edo eragin gune zehaztu ditu.



Koldo Zuazo

Arnaut Oihenart historialari zuberotarrak egin zuen euskalkien lehen aurkezpena, XVII. mendean. Antzinako leinuekin lotu zituen eta, horren arabera, lau euskalki zeudela esan zuen: akitaniarra, Iparraldean hitz egiten zena, baskoiena edo Nafarroakoa, barduliarrena edo Gipuzkoa eta Arabakoa, eta austrigoiena edo Bizkaikoa.

Oihenartek ezarritako 'leinuak-euskalkiak' bikoteari hirugarren osagai bat gehitu zitzaion XX. mendean: elizbarrutiak. Serapio Mujikak *RIEV* aldizkarian (1914-17) plazaratutako artikulu batean, esate baterako, elizbarrutien mugak antzinako leinuekin bat zetozela esan zuen eta oraingo euskalkiak batasun haren lekuko dira. Gerraostean, Julio Caro Barojaren liburu ezagun bitan jaso zen ikuspegi hori: *Los pueblos del norte de la Península Ibérica* (1943) eta *Materiales para una reconstrucción de la lengua vasca en su relación con la latina* (1946). Oihartzun zabala eduki zuten liburu horiek eta, horrenbestean, erabat nagusitu zen euskalkiak antzinakoak ziren ustea, eta euren mugak aspaldiko leinuekin eta elizbarrutienekin bat zetozelakoa. Azkenaldian, ostera, gainbehera egin du ikuspegi horren indarrak.

Leinuak eta Elizbarrutiak

'Leinuak-elizbarrutiak-euskalkiak' hirukoteak mendebalean dauka euskarririk sendoena; Araban, Bizkaian eta Deba ibarrean. Ere horretan karistiarrak zeudela esaten da—ez austrigoiak, Oihenartek esan zuen bezala—, Armen-

tiako Elizbarrutia lehenengo eta Calahorrrakoa gero osatu zuen eta, hizkuntzaren aldetik, tankera bereko euskara egin izan da bertan.

Oiartzun-Hondarribia-Irun alderdia ere sarri aipatzen da, baina hor bada kontraesan bat. Izan ere, alderdi horretan baskoiak egon omen ziren, eta nafartzat jo izan da euskalkiari dagokionez, baina elizaz Baionakoa zen, eta ez Iruñekoa, espero zen bezala.

Baina kontraesanak larriagoak dira beste alderdi batzuetan eta horrexegatik isiltzen eta saihesten dira. Esate baterako, Bonapartek lau euskalki bereizi zituen Iparraldean. Beste batzuk hori gehiegizkoa dela uste dugu, baina, dena dela, denok onartzen dugu euskalki bi, behintzat, badirela: zuberotarra eta nafar-lapurterra. Beraz, bi—edo lau—dira Iparraldeko euskalkiak, baina hiru elizbarrutiak eta, dirudienez, bakarria alderdi hartan egon zen leinua.

Gipuzkoan eta Nafarroan ere ez da betetzen 'leinuak-elizbarrutiak-euskalkiak' lotura. Herrialde bi horietako zatirik gehiena elizbarruti berean egon zen: Iruñekoa. Aldiz, leinuak bi ziren, baskoiak eta barduliarrenak, eta euskalkiak ere gutxienez bi dira, giputza eta nafarra, nahiz eta beste hizkera berezi bi ere badiren; Erronkari eta Zaraitzu ibar nafarretakoak.

Azken batean, ez dirudi leinuen eta elizbarrutien arteko loturarik dagoenik eta, hain zuzen, halaxe erakutsi du Elena Barrena historialariak *La formación histórica de Guipúzcoa* (1989) liburuan, Gipuzkoako adibidea eredutzat hartuta. Iritzi bera plazaratu du Roldán Jimenok ere *Los orígenes del cristianismo en la tierra de los vascos* (2003) saioan.

Kontuan eduki behar dugu, gainera, elizbarrutiak antolatuta zirenerako, leinuak aspaldi galduta zeudela, eta benetan harrigarria litzateke mende batzuk geroago haien muga berberak berriro erakitzeko gai izatea.

Hizkuntzaren lekukotasuna

Koldo Mitxelena «Lengua común y dialectos vascos» izeneko artikulua argitaratu zuen 1981ean eta, bertan, euskalkiak uste den baino berriagoak zirela esan zuen. Arrazoi bi eman zituen horretarako:

1) Berdintasun handia dagoela euskalkien artean, eta hori ezinezkoa izango zela euskalkiak antzinakoak balira.

2) Berrikuntza berdin ugari dagoela euskalki guztietan, eta hori ere ezinezkoa izango zela euskalkiak aspalditik zatituta egon balira. Esate baterako, latinetik etortako hitzak modu berean egokitu dira euskalki guztietara.

Arrazoi horietan oinarrituta, euskalkien zatiketa ziurrenera VI. mendea baino geroagokoa zela uste zuen Mitxelena.

Euskalkiak aztertzen jardun ondoren, Mitxelena ikuspegia zuzena dela iruditzen zait eta bada, gainera, haren arrazoiei gehitu dakiekeen hirugarren bat: benetan bereziak diren euskalkiak bazterretakoak direla, hau da, Zuberoakoa, Erronkarikoa, Zaraitzuko eta mendebalekoa. Erdigunekoetan gutxi eta txikiak dira aldeak. Hori ere, jakina, ez zen horrela izango euskalkiak antzinakoak balira.

Bazterretako euskalkiak direla bereziak diogu, baina berezi izate hutsa ez da euskalkiak antzinakoak direla esateko oinarri nahikoa: berrikuntzen zenbatekoa eta nolakoa da, batez ere, kontuan hartu behar duguna. Argitu dezagun, lehenengo eta behin, «berrikuntzak» hizkuntzaren bilakaeran gertatutako aldakuntzak direla. Adibide ezagun batekin erakusteko, mendebaleko euskalkien berrikuntza esanguratsu bat egin da asteke egunen izenetan. Euskal Herri osoko edo gehieneko *astelehena*, *astearte*, *asteazkena*,

«Benetan bereziak diren euskalkiak bazterrekoak dira, erdigunekoetan gutxi eta txikiak dira aldeak»

«Dirudienez, Erdi Aroan hasi zen euskalkien ibilbidea eta ez da eten XXI. mendea bitartean»

«Iparraldeko eta Hegoaldeko euskarak gero eta desberdinagoak egiten ari dira»

osteguna, *ostirala*, *larunbata* eta *igandea* hitzen ordez, *ilena* (baina baita, eta askozaz eremu zabalagoan gainera, *astelehena* ere), *martitzena*, *eguaztana*, *eguen*, *barikua*, *zapatua* eta *domekea* sortu eta zabaldu dira. Azken batean, berrikuntzak zenbat eta ugariagoak eta zenbat eta larriagoak izan, orduan eta antzinagokoak izan daitezke dialektoak. Aldiz, berrikuntzak gutxi eta txikiak direnean, dialektoak berri samarrak diren seinale garbia.

Irizpide hori arestian aipatu diren bazterretako euskalkietan erabiltzen badugu, Erronkarin eta Zaraitzun oso berrikuntza gutxi egin direla ikusiko dugu. Auzoetatik hartu dituzte: Zuberoatik eta Nafarroako beste hizkera batzuetatik hornitu dira.

Gertakari berbera daukagu Zuberoan; hura ere auzotik elikatu da. Euskara zuberotarraren berrikuntza asko—*i* bokala, esate baterako—okzitanieratik etorri dira. Gogoan eduki behar dugu okzitaniera izan zela Zuberoako aspaldiko hizkuntza ofiziala eta, XX. mendean bertan, asko ziren okzitaniera erabiltzeko edo, behintzat, ulertzeko gai ziren zuberotarrak.

Mendebaleko euskalkia gelditzen zaigu eta hor bada bertan sortutako berrikuntza multzo hazia, baina haren lekukotasun bakarrek ezin dugu euskalkiak antzinakoak direla aldarrikatu. Gehienik ere, mendebaleko bizilagunak oso aspalditik bere kasa eta gainerako euskaldunengandik bereizita ibili direla esan dezakegu.

Noiz eta zergatik zatitu ziren euskalkiak

Behin honetaraz gero, euskalkiak noiztsukoak ote diren eta nola eta zergatik sortu ziren erakutsi behar dugu. Esan dezagun, hasteko, gaur egungo euskalkiak bazirela XVI. menderako, ezagutzen ditugun lehen izkribuen garairako. Badirudi, beraz, Erdi Aroan barrena sortu zirela, ziurrenera, oraingo herrialdeak sortu ziren aldi berean.

Bestalde, euskararen egiturari begiratzen badiogu, oso eten esanguratsu bi daudela ikusiko dugu, eta hori ere agerian dago XVI. menderako. Eten horietako bata Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako euska-

ra Nafarroatik eta Iparraldeko bereizten du eta bigarrenak, berriz, Iparraldeko Hegoaldeko. Baliteke Nafarroako Erresumaren haustura egotea horren azpian. Une hartatik aurrera, hain zuzen, Lapurdik eta Zuberoak, bereziki, Pirinio mendiez bestaldeko herriekin estutu zituzten hartu-emanak eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa, berriz, Gaztelako Erresumarekin batu ziren. Litekeena da XI-XII. mendeetan herrialde euskaldunetan gertatutako antolakuntza berriak hizkuntzaren bilakaeran zerkusua izatea eta, litekeena, orduan gertatu izana euskalkiak zatitze bideko lehen urrats esanguratsua.

Beste urrats bat—eta honetan ez dago inolako zalantzarik—XVIII. mendearen bigarren erditik XX. mendearen lehen erdira bitarteko epean gertatu zen. XVIII. mendearen bigarren erdian hasi zen erabiltzen euskara giputza literaturan, XIX. mendean bizkaitarra eta zuberotarra, eta XX. mendean lortu zuen nafar-lapurteko bere heldutasuna eta, horrenbestean, euskalkiak bata bestearengandik aldentuz eta urrunduz joan ziren. XIX. mendean, gainera, Bonaparteren eta haren lankideen eragina eduki behar dugu kontuan. Ahalegin handia egin zuten euskalkien, azpieuskalkien eta hizkera berezi guztien mugak zehatz zedarritzen eta ahaleginak ekarri zuen bere emaitza jakina: muga horiek sakonago eta zabalago egin ziren.

1960az gero gutxi gorabehera, euskalkiak batasun bidean agertzen dira, baina aldi berean, Iparraldeko eta Hegoaldeko euskarak gero eta desberdinagoak egiten ari dira. Jakina, mugaren alde bakoitzean ofizialak diren erdara biak dira horren arrazoia. Bizkaian ere ez da guztiz itzali gainerako euskaldunengandik bereizteko grina eta, gehienbat, herrialde hartan euskara bizkaitar batua zabaldu nahian dabilzan taldeena da horren erantzukizuna.


Gune berritzaileak

Dialektoen antzinasunaz zehazteko, hizkuntzaren bilakaeran gertatutako berrikuntzak hartu behar direla kontuan esan da. Era berean, dialektoak sailkatzeko ere berrikuntzetan jarri behar dugu


■ EUSKALKIEN SORGUNEAK

Euskalkiak non sortu eta nora hedatu ziren.


I. Iruñearen eragin esparrua




II. Gasteizen eragin esparrua




III. Zuberoaren eragin esparrua



IV. Beterriren eragin esparrua



V. Bizkaiko erdigunearen eragin esparrua



arreta, berrikuntzek izan duten eremuaren arabera ezarri ohi direlako dialektoen mugak. Garbi dago, beraz, ezinbestekoa dela berrikuntzak aztertzea.

Elena Barrena historialaria izan da horretaz arduratzen lehena. Pedro Irizarren mapa linguistikoetan oinarrituta, hiru gune bereizi zituen, gorago aipatu den liburuan. Hiru menditan kokatu zuen euskalkien sorburua: Gorbeian, Aralarren eta Nafarroako iparraldean dagoen Saioan.

Ez zait iruditzen hiru gune horietatik abiatuta azal daitekeen euskalkien jatorria eta ez zait iruditzen mendietan dagoenik euskalkien hasiera, hiriguneetan baizik. Bost gune ikusten ditut nik; antzinakoak dira horietako bi eta oraintsuagokoak gainerako hirurak (*Euskalkiak, Herriaren lekukoak* [2003] saioan erakutsi nituen zenbait frogak).

Antzinakoguneetako bata Nafarroan agertzen da; ziurren bertako hiri nagusia: Iruñean. Bigarrena, berriz, mendebalean; hori ere ziurren bertako hiri nagusia: Gasteizen. Iruñearen eragin eremuak, Nafarroaz gainera, Lapurdi, Nafarroa Beherea, Gipuzkoa gehiena eta, ahulago, Arabako ekialdea hartu zuela ematen du. Gasteizen eragin eremua, berriz, Araba bertara, Bizkaira, Deba ibarrera, Errioxara eta, ahulago, Urolaldera, Goierri eta Nafarroako mendebaleko hiru ibarretara –Burunda, Ameskoak eta Lana– hedatu zen.

Ikusten denez, Arabako ekialdea eta Nafarroako mendebaleko eragin bien indarrak harrapatu zituen. Ohiko gertakaria da hori hizkuntzen bilakaeran eta, hain zuzen, horrela sortu ohi dira «arteko hizkerak» deitzen direnak, aldi berean dialekto biren edo gehiagoren eraginak dituztenak. Dena dela, bereziki nabarmentzekoa iruditzen zait Arabako ekialdean eta Nafarroako mendebalean tankera bereko hizkera egitea, bi herrialde desberdinetakoak –eta bi erresuma desberdinetakoak; Gaztela eta Nafarroakoak– eta bi elizbarruti desberdinetakoak –Iruñea eta Calahorreak– direlako eremu horiek. Garbi dago, beraz, era askotako arrazoiak daudela dialektoen sorreran, besteak beste, ekonomia-ekin, merkataritzarekin eta gizarte hartu-emanekin zerikusia daukatenak.

Bada, gainera, nabarmendu nahi dudana bigarren gertakari bat: mendebaleko euskararen eremua ikusita, garbi dago sorgunea Gasteizen izan behar zela. Bizkaian balego, zaila gertatuko zen haren oihartzuna Nafarroaraino heltzea. Goierri heldu izana ere hobeto ulertzen da Gasteiztik abiatuta. Ez dezagun ahaztu Goierritik –San Adriango haitzuloan barrena– zihola Araba itsasoarekin lotzen zuen bideetako bat. Gainera, Erdi Aroko Bizkaiko hiriguneak ezin dira inondik inora Gasteizen handitasunarekin alderatu.

Gainerako hiru gune berritzaileak oraintsuagokoak dira. Zuberoan dago bata. Esan dugunez, Zuberoa izan da okzitanieratik sartu diren berrikuntzen atea, eta horietako batzuk Lapurdiko ekialderaino heldu ziren. Erronkari, Zaraitzu eta, ahulago, Aezkoa ibar nafarrak ere eragin eremu barruan zeuden.

Bigarren gunea Gipuzkoan dago, Iruñea itsasoarekin lotzen duen bide bazterretan. Hantxe sortu ziren hirigune esanguratsu zenbait: Tolosa, Villabona, Andoain, Hernani eta Donostia. Honen eragin eremuak Deba ibarreko iparralde eta Nafarroako ipar-mendebale hartu zuen; zehatzago esateko, Araitz, Basaburua, Larraun eta Imotz ibarrak. Ahulago, Deba ibarreko hegoaldera, Bortzirriak eta Sakana eskualde nafarretara, Lapurdiko itsasbazterre eta Bizkaiko Artibai ibarrera (Ondarroa-Markina) hedatu zen.

Hirugarren gunea, eta denetan berriena, Bizkaiko erdigunean dago, Mungialdea, Busturialdea, Txorierri eta Arratia ardatz dituela. XIX. mendetik honakoa da bere eragina eta Bizkaiko apaizak eta fraide kongregazio jakin batzuk –frantziskotarrak, karmeldarrak eta pasiotarrak, gehienbat– izan dira hedatzaileak. Honen oihartzuna ez da heldu Deba ibarrera eta oso ahula da Artibai eskualdean.

Nabarmentzekoa da Bilboren eragin txikia. Gutxi dira han sortutakoak diruditen berrikuntzak eta, hangotzak jo daitezkeen apurrik, oso eremu txikian zabaldu dira. Esate baterako, iraganaldiko adizkien amaierako *-n* galtzea (*egon za; egon zan / egon zen* orokorren orde) Uribe Kostako herri gutxi batzuetara baizik ez zen heldu.

Dena dela, harrigarriagoa iruditzen zait Lapurdiko itsasbazterren eragin gutxia. Euskal literaturan oso indartsu egon zen XVII. mendean eskualde horretan, eta bai demografiaren eta bai ekonomiaz gizarte aurreratua izan zen. Hizkuntzari begiratuta, berriz, berrikuntza esanguratsu bakarra daukat oraingoz hangotzat: NOR-NORI-NORK saileko adizkien orde, NOR-NORK sailekoak erabiltzea. Hau da, *erran nau* (ez *erran daut / esan dit*) edo *galdegin naute* (ez *galdegin daute / galdegin didate*) esatea.

Hau da, labur esanda, euskalkien bilakaera. Dirudienez, Erdi Aroan hasi zen ibilbidea eta ez da eten XXI. mendea bitartean. Bost euskalki azaltzen dira une honetan: a) Mendebalekoa, Bizkaian, Deba ibarrean eta Arabako Aramaion bizirik iraun duena, b) Erdialdekoa, Gipuzkoa gehiengan hitz egiten dena eta Nafarroako Araitz, Larraun, Basaburua eta Imotz ibarretan zabalduz doana, c) Nafarra, d) Nafar-lapurterra, herrialde bi horietan ez ezik, Zuberoako ipar-mendebalean eta Nafarroako Luzaiden ere egiten dena, eta e) Zuberotarra, administrazioz Biarnokoa den Eskiulan ere mintzatzen dena.